

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Foru Komunitatearen eta Nafarroa Beherearen arteko turismo-lankidetzaz indartzera animatu du

*Kultur turismoari buruzko bi Nafarroen Mintegiaren bederatzigarren edizioa hartu du Erriberrik astearte honetan*

Martes, 21 de mayo de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Foru Komunitateko eta Nafarroa Behereko (Frantzia) turismoko erakunde eta enpresak animatu ditu kultur turismoko sektorean lankidetzaz susta dezaten, lankidetzako arlo "interesgarria" dena eta "zalantzarik gabe" balioko duena "gure herritar guztiak kulturalki, sozialki eta ekonomikoki aberasteko".



Barcina Lehendakaria, erdian, agintarien eta mintegira bertaratutakoaren artean, Erriberri.

Yolanda Barcinak Done Jakue bidez hitz egin du berriaz, garai batean Nafarroako Erreinukoak izan ziren bi lurraldeak "beti batu izan gaituen" bidea eta "gero eta indar handiagoz batzen jarraitu behar gaituena", eta gaur [Bi Nafarroen Mintegiaren bederatzigarren edizioa](#) ospatu dute Erriberri. Topaketa horretan bi eskualdeek duten harreman historikoa ospatzen da "giza balio eta kultur balio berak ditugun eskualdeak", adierazi du bere [agerraldian](#).

Bilkuran kultur turismoaz aritu dira, 2012-2015 aldirako Nafarroako Turismoaren Plan Integralaren lehentasunezko produktuetako bat dena eta azken urteotan Foru Komunitatearen irudia sustatzen utzi duena "kalitatezko" turismoko helmuga gisa, duen "monumentu-ondare handiagatik. Ondare hori katedralek, elizek, gazteluek, monasterioek, jauregiek, museo-sareek eta kultur jarduerak osatzen dute, Yolanda Barcinak aipatu duenez.

Erriberrin egindako mintegia –lehengo Erreinuko errege egoitza eta Nafarroako turismoko helmuga nagusietako bat– bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Juan Luis Sánchez de

Muniáinek eta udalerriko alkate Francisco Legaz-ek inauguratu dute; itxiera-ekitaldia, berriz, Barcina Lehendakariak eta Pirinio Atlantikoetako kontseilari nagusi François Maitia-k egin dute.



Barcina Lehendakaria mintegira bertaratuakoei hitz batzuk esaten.

Barcinak nahiz Maitiak Erriberriko alkatearen oparia jaso dute: Erriberriko Merindadeko Kontseilutik kontserbatzen den zigilu zaharrenaren erreplikak, 1.291. urtekoa dena.

### **Turismoko hiru ekimen**

Bilkuraren esparruan Foru Komunitateko hiru zonaldeetan sustatutako hiru turismo-ekimen ezagutzera eman dira: Nafarroa Erdialdeko turismo-eskaintza; Estellerriko "Irazuko Soinuak" programa; eta "Yelmo" proiektua, Eugi (Nafarroa) eta Banca (Nafarroa Beherea) udalerrien industria-ondarearen balioa handitu nahi duena.

Erdialdeko kultur turismoari buruzko lehen hitzaldia [Guiarte Servicios Turísticos](#) enpresaren zuzendaritzako kide Javier Adot eta Katrin Setuain-ek eman dute. Gaur egun, hamabost lagunek egiten dute bertan lan, guztiak zonaldekoak eta % 90 emakumezkoak dira. Enpresak Nafarroa Erdialdeko turismo-baliabide nagusiak kudeatzen ditu: Erriberriko Errege Jauregia, Andelosko Hiri Erromatarra, Musen Hiri Erromatarra eta Radako barruti harresitua, eta ia bederatzi urteko esperientzia izanik milioi bat pertsona baino gehiagori eman die arreta.

Bigarren hitzaldia "[Sonidos de Irazu](#)" ("Irazuko Soinuak") turismo eta kultur programan oinarritu da eta Irazuko Lurrak Turismo Elkarteak sustatu du. Bertako gerente Charo Apesteguiak azpimarratu duenez, artea eta turismoa bat-egiten dituen proiektua da kontzertuak, antzezlanak eta kirol-ekintzak turismo-intereseko natura- eta ondare-espazioetan antolatuz: Lezaungo San Pedro eliza, Egiarteko San Maria eliza eta Allozko urtegia. Estatuak diruz lagundutako programa aurtengo maiatz eta irail artean garatuko da.

Hirugarren eta azken hitzaldia Eugiko Kontzejuko (Esteribar) lehendakari Maite Erreak eta Nafarroako Behereko Banca udalerriko Mixel Oçafraín alkateak eman dute. Bi udalerriek "[Yelmo](#)" mugaz haraindiko lankidetzaproiektuan parte hartzen dute, eta haren helburua da, Eugiko Armen Errege Fabrika eta Bancako Brontzearen Labe Garaia inguruan dagoen industria-ondarea errekonstruzioa eta balioa ematea; horrekin batera, interes historiko eta ingurumeneko interesa duen ibilbidea sortzea. EGEF Europako funtsek diruz lagundutako eta Pirinioetako Lan Elkarteak kudeatutako Pirinioetako 17 lankidetzaproiektuetako bat da.

Jardunaldia udalerriko inguru historikotik eta monumentuen ingurutik egindako bisita gidatuarekin amaitu da, arreta berezia jarriz Errege Jauregian eta Santa Maria elizan, eta adiskidantzazko bazkaria eginez.

### **Bi Nafarroen Mintegia**

Gogora ekarri behar da bi Nafarroen Mintegia 2005. urtetik urtean behin ospatzen den kultur ekitaldia dela (urte bat Frantziako Nafarroan eta hurrengoan Espainiako Nafarroan), bi lurraldeetako kultur instituzio eta erakundeen artean ezagutzak, esperientziak eta proiektuak partekatze asmoz.

Nafarroako Gobernuak sustatuta dago, Nafarroa Behereko udalerrin nagusiekin eta Nafarroa Zaharraren Lagunak Elkarte bezalako kultur erakundeekin batera, egoitza Nafarroa Behereko Donibane

Garazin duena.

Iaz ospakizuna Nafarroa Behereko La Bastide Clairence udalerrian egin zen, Nafarroako Luis I. eta Frantziako X.a Hutín erregeak hura 1312an sortu izanaren zazpigarren mendeurrena zela eta. Aurreko urteetan Donibane Garazi, Saint Palais eta Baigorri udalerrri frantsesetan egin zen, eta baita Orreaga, Iruña, Zudaire eta Ujué udalerrri espainiarretan ere.

### Galería de fotos



Erriberriko alkatea Erriberriko Merindadeko Kontseiluaren zigiluaren erreplika Barcina Lehendakariari ematen.